

## Ekonomia Bultzatzeko zinegotzigoak tokiko merkataritzarako laguntzak zabaldu dizkie Ategorrieta-Ulia, Loiola eta Martuteneri



**200.000 euro jarriko ditu establezimenduak modernizatzeko eta saltoki berriak irekitzeko; 5.000 €-ra bitarteko laguntza eskura daiteke**

Jarduera ekonomikoa eta komertziala, hiri-ehuna suspertzea, enpresa berriak sortzea eta saltoki berriak irekitzea sustatzeko helburuarekin, Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoak, Donostiako Sustapenaren bitartez, laguntza-programa bat ireki du establezimenduak modernizatzeko eta berritzeko eta saltoki berriak eta hurbileko zerbitzu pertsonalak irekitzeko Donostiako Ekialdeko auzoetan: Altza, Intxaurrondo, Mirakruz-Bidebieta, Egia, Ategorrieta-Ulia, Loiola eta Martutene.

Ekonomia Bultzatzeko zinegotzia den Enrique Ramos ondorengoa adierazi du: “laguntza horien bitartez, hurbileko merkataritza biztanleen kontsumo-ohituren aldaketetara egokitzea nahi dugu, eskaintza erakargarriagoa eginaz. Modu horretan, txikizkako merkataritzari erreminta berriak eskaintzen dizkiogu lehiakorragoa izan dadin”.



Laguntzak Donostiako Sustapenaren web orrialdearen bitartez eska daitezke, eta pertsona fisiko edo juridikoentzat eta behe solairuan kokatutako establezimendu baten edo gehiagoren titularrak direnentzat eta jardunean dituztenentzat dira. Jarduera nagusiak honako hauetakoren bat izan behar du: txikizkako merkataritza (elikadura-produktuak, edariak eta tabakoa); elikadurazkoak ez diren produktu industrialak; etxerako artikulu elektrikoaren konponketa; garbitegiak, tindategiak; ile-apaindegiak eta edertasun-institutuak; argazkigintza-zerbitzuak eta fotokopienak; tabernak, kafetegiak, jatetxeak eta txurro-dendak, bidaia agentziak, irakaskuntza jarduera batzuk, estomatologiako eta odontologiako kontsulta klinikoak, naturopatia eta akupuntura zerbitzuak eta zerbitzu parasanitarioak, albaitaritzako kontsultak eta klinikak.

Establezimendu aktiboen kasuan:

- Berritze-lanen zenbatekoaren %80a diruz lagunduko da.
- Higiezinaren eta makineriaren inbertsioaren %80a diruz lagunduko da.
- Ekipamendu teknologikoaren inbertsioaren %80a diruz lagunduko da (gehienez 1.000 €).
- Aholkularitza eta kontsultoretza teknologikoko gastuen %50era bitarte diruz lagunduko da (gehienez 500 €).

Establezimendu berrien kasuan:

- Berritze-lanen zenbatekoaren %80a diruz lagunduko da.
- Higiezinaren eta makineriaren inbertsioaren %80a diruz lagunduko da.
- Ekipamendu teknologikoaren inbertsioaren %80a diruz lagunduko da (gehienez 1.000 €).
- Aholkularitza eta kontsultoretza teknologikoko gastuen %50era bitarte diruz lagunduko da (gehienez 500 €).
- Enpresa berriaren lokalaren alokairu-gastuaren %80a diruz lagunduko da (gehienez 2.500 €).

Bi kasuetan, laguntza gehienez 5.000 €-koa izango da. Eskaerak aurkezteko epea irekita egongo da harik eta baliabide ekonomikoak (200.000 €) agortu arte edota deialdia 2020ko urriaren 1ean ixten den arte.



*Hiri berritzailea*  
*Ciudad innovadora*

fomentosansebastian.eus